

Makiak Euskal Herrian

Urko Apaolaza Avila
EHUko ikaslea

Lan honetan, Espainiako Gerra Zibilaren ostean sortu ziren gerrilla-mugimenduek Euskal Herrian izan zuten eragina aztertzen da. Bi dira helburu nagusiak: a) Makien ekintzek Euskal Herrian nortasun berezirik izan ote zuten jakitea. b) Estatu mailan sortu zen fenomenoaren zergatik zapuztu zen ezagutzea. Horretarako, Victorio Vicuña eta Jesus Monzon, makien inguruko bi protagonista nagusiren esperientziak ere azaltzen dira.

In this work we analyse the impact of the partisan movement in the post-war in the Basque Country. There are two main aims: a) Investigate if the maquis' actions had any singularity in the Basque Country. b) Know the reasons that provoked the failure of this movement that appeared in all states. For that aims we also analyse the personal experiences of Victorio Vicuña and Jesus Monzon, two protagonists related with the maquis.

1. Sarrera

1.1. Helburuak

Espainiako Gerra Zibila amaitu zenean, milaka eta milaka pertsonak alde egin behar izan zuten: batzuk Ameriketara joan ziren, beste asko, ordea, gertuago zuten Frantziara abiatu ziren. Hauen artetik sortuko dira herriak “makiak” bezala ezagutzen dituen gerrillari taldeak, oso baldintza txarretan eratuak, II. Mundu Gerra zela eta, naziek harturik baitzuten Frantzia. Alde batetik, naziek, eta bestetik, Francoren errepresioak harrapatuak ibili ziren.

Gerrillari-taldeen fenomenoak estatu espainiar osoan gertatu zen, baita Frantzian ere. Euskal Herrian egon zen horrelako mugimendurik eta honako lan honetan mugimendu hori azaldu nahi dut¹. Bere ezaugarriak zeintzuk izan ziren aztertu nahi dugu, ea ezaugarri berezirik izan zuen eta horren eragina norainokoa izan zen Euskal Herrian. Horretarako ezinbestekoa iruditzen zait makiak mugitu ziren testuingurua ezagutzea, eta modu berean, kontuan harturik estatu-mailako gertakizun bat izan zela, beste lekuetan makien egoera zein izan zen aztertzea, Euskal Herrikoarekin konparatzeko.

Orain artean gai honen inguruan egon den isiltasuna ikusirik, ondorio batzuk atera nahi nituzke lan honekin. Espainiako Gerra Zibilaren jarraipen bat izan ote zen, edo soilik ideologiak bultzaturiko talde eskas batzuen ekintzak izan ote ziren, gerra aurretik egiten ziren matxinada eta borroken antzekoak, hain zuzen. Bestalde, jakin nahi nuke zergatik zapuztu zen honelako mugimendu bat, presio militarrengatik, edo ideologia ezberdinen artean zeuden iskanbila eta mesfidantzeengatik.

Beraz, bi helburu orokor burutu nahi ditut lantxo honen bitartez: makien kasua Euskal Herrian ezberdina edo beste leku batzuetakoa bezalakoa izan zen aztertzea, eta horrez gain, mugimendu hau orokorrean harturik, zertarako sortu zen eta zergatik zapuztu zen jakitea. Lehen esan bezala, helburu hauek burutu ahal izateko testuinguruari garrantzi handia emango diot, baina gerrilla horien protagonista izan ziren zenbait pertsonairen bizitzaz ere baliatuko naiz, beraien testigantza ezinbestekoa delako ikerketa hau osatzeko².

Bibliografia aldetik, esan beharra dago orain artean mantendu den isiltasunagatik makien inguruko ikerketa egitea oso zaila dela. Artxiobotan ez dago ia hauen berririk, eta gainera gerrillari hauek jasan behar izan zituzten baldintzak eta geroko errepresioak ez du ezertan lagundu. Isilean egon behar izaten zuten, salagarriak ziren frogak deuseztatuz; Francoren propaganda ustelak nahasmen handia sortu zuen, gaizkile hutsak zirela esanez.

1. Kontuan harturik abertzaletasuna oso zabalduarik egon zela lurralde honetan, jakin beharko litzateke ideologia honek Euskal Herrian egon zen gerrilla mugimendua baldintzatu zuen ala ez.

2. Orain gutxira arte ez da pertsonaia hauen biografirik idatzi. Atzerapen honek, frankismoaren propagandak sortu zuen hauen kontrako memoria gaiztoaren iraupenarekin du zerikusia. Gaur egun jende ugari gaizkiletzat ditu (Espainiar Parlamentuaren ekimen batzuk egon dira azkenaldian, pentsaera horri aurre egiteko).

Dena den, azken urte hauetan, zenbait liburu eta artikulu argitaratu dira gai honi buruz, batzuk oso mardulak. Eskertzekoa da, halaber, Victorio Vicuñaren biografia argitaratu izana (Vicuña, 1995), bertan gerrillen inguruko testigantza aberatsa azaltzen baita. Oraindik asko dago egiteko, baina urteek aurrera egin ahala informazio gehiago bilduko delakoan nago, batez ere ikusirik gaiaren interesa oso handia dela, erromantikoa, esango nuke nik.

1.2. Kontzeptuak

Lanarekin hasi aurretik, komenigarria da aztertuko dugun gaiari buruzko zenbait kontzeptu argitzea, horrela, artikulua irakurtzean nahasmenik sor ez dadin. Hasieratik makiak hitza aurkitzen dugu; gaztelaniaz *maquis* deitzen zitzaien gerrillari hauei. Termino hau, *macchia* hitzetik sortua da, eta zera adierazi nahi du: sastraka eta lahardien lurraldea, mendi baxu eta harizti edo artadiz beterikoa. Deskribatu ditugun lurralde horiek gordetzeko edo ihes egiteko ezin egokiagoak dira ikusirik, ez da harriztekoa gerrilla horri horrela deitu izana, nazi alemaniarrengandik ihes egiten zuten taldeak ziren hauek eta. Frantzian horrela deitu zitzaien, eta azkenean hitzak indarra hartu zuen herri-hizkeran, kontzeptuaren idealizazioa gauzatu.

Beste kontzeptu batek gerrillarekin dauka zerikusia. Gerrilla hitzak zera esan nahi du: «Ohizko armadaz kanpo antolatutako jende multzoa, ekintza mugatuak eta eskala laburrekoak egiten dituena, beste baten mende dagoen herri batean esate baterako»³. Gaur egungo jendearen kontzeptua arras ezberdina da gerrillari dagokionez, talde handiagoak direlakoan. Baina ikustea besterik ez dago, nola Picos de Europa inguruan zeuden 40 makiek zortzi gerrilla osatu zituzten. Beraz, oso talde txikiak ziren.

Gune geografikoari dagokionean, Euskal Herriaz hitz egitean, euskalduntzat hartzen diren zazpi probintziez arituko naiz; baina, era berean, Pirinioez edo Kantauri aldeko mendiez hitz egiten dudanean, euskal lurralde batzuk ere sartuko ditut bertan⁴. Gainera, probintzia bakoitzaren berezitasuna ez dut albo batera utziko, esate baterako Nafarroa edo Ipar Euskal Herriko probintzienak.

2. Testuingurua

2.1. Espainiako Gerra Zibiletik II. Mundu Gerrara: erbestealdia eta erresistentzia

Espainian eta Euskal Herrian, Gerra Zibilak sekula ikusi ez zen oinazea eta sufrimendua ekarri zuen. Lehenengo aldiz, populazio zibilak zuzenki sufritu behar izan zituen gerra baten ondorioak; hiru urte luze iraun ondoren, bazirudien Franco-ren indarrek garaipena gertu zutela, eta Espainian gelditzen ziren errepublikarrek erbestera joan behar izan zuten; milaka izan ziren, milioi erdira iritsi arte. Pirinioak gurutzatu zituzten bai soldaduek eta bai herritar soilek ere; beste batzuek itsason-

3. *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*, 5. liburukia, 117. or., 1994.

4. Zentzu honetan, gutxi dira Euskal Herria bere osotasunean ikertu duten makiei buruzko lanak. Soilik Mikel Rodríguez-ek egin zuen honelako saiakera bat (Rodríguez 2000a).

tzietan egin zuten alde. Baina asko eta asko bertan geratu ziren harrapaturik, Santoñan edo Alacanten.

Erbestaldia gogorra izan zen askorentzat: Frantzian errefuxiatu guneetan sartu zituzten; goseak eta izurriak jota, asko hil ziren Gurs, Le Vernet edo Rivesaltes-en. Erbesterratu horiek guztiak arazoa ziren Frantziar estatuarentzat; gainera, II. Mundu Gerra hasi berria, Hitler-Stalin hitzarmena zela eta, komunista espainiarrek mesfidantza handia sortu zuten frantsesengan. Baina benetako oinazea, naziek Frantzia okupatu zutenean hasi zen, kontzentrazio guneetan sartu eta bertan hiltzen baitziren gehienetan. Gauzak aldatu egin ziren: erresistentzia frantsesa sortu zen, eta erresistentzia honentzat oso komenigarriak ziren gerrillari espainiar esperimentatuak. Vichy-ko gobernupean zegoen alde frantziarrean, “lan-konpainiak” sortu ziren eta hauen artean ikazkin eta egurgile taldeak; Vichy-ko gobernuko agintari asko nazien kontra zeuden eta ez zituzten gaizki ikusten horrelako mugimenduak. Horregatik, lan talde hauek erresistentzia estaltzeko erabili ziren. Ikazkin eta egurgile talde hauetatik sortuko da Gerrillari Espainiarren Taldea (Agrupación de Guerrilleros Españoles).

2.2. Maki espainiarrak Frantzia eta Pirinioetan

2.2.1. Jesus Monzon

Makien inguruko guztia ongi ulertu ahal izateko, lehenik, mugimendu hauek gertutik ezagutu eta antolatu zituen pertsonaia baten bizitza ezagutu beharko genuke: Jesus Monzon, Espainiako Partidu Komunista-ko (PC) buruzagia gerra garaian eta gerra ostean⁵.

Jesus Monzon, Iruñean jaio zen, familia karlista baten magalean, 1910ean. Segituan azaldu zituen bere familiarekiko ezberdintasun ideologikoak, ateismoa eta komunismoa doktrinatzat hartuz; ikasketak Bartzelona eta Madrilen egin ondoren formazio ideologiko sendoarekin itzuli zen Iruñera. Errepublika hastean PCko militante egin zen eta biziki hartu zuen parte alderdi horren ekintzetan; hainbat aldiz atxilotu zuten. Behin eta berriz salatu zuen karlistak altxamendu baterako preparatzen ari zirela.

Gerra Zibilean PC-Euzkadiko buruzagietako bat izan zen eta, azkenik, Alacanteko Gobernadore Zibil izendatu zuten. Baina erantzukizun handiena gerra amaitzean hartu zuen: errefuxiatuen irteera zuzendu zuen PCko buruzagitza Moskura joan zenean. Baina ez hori bakarrik, Vichy-ko Frantzian geratu behar izan zirenak antolatu zituen, Espainiar Gerrillari Taldea sortuz. Jesus Monzonek *Unión Nacional* delakoa bultzatu zuen, anti-falangista guztien adiskidetzeara Francoren aurka egiteko —anarkistak, karlistak, komunistak...—; izan ere, Francok faxismoarekin ados ez zegoen gizarte talde handi baten laguntza biltzea lortu zuen; laguntza hori kendu beharra zegoen, eta horretarako sortu zen 1942an *Unión Nacional*, erakunde honen aldeko manifestua argitaratu zenean. Beraz, PCko agintaritzak hartu eta alderdia antolatu zuen, naziek Frantzia harturik zutenean, Moskun zegoen buruzagitzarekiko independentzia osoz. Makiak armetan jarri eta

5. Orain artean bere alderdiak isiltasunean gorde badu ere, orain dela gutxi pertsonaia honi buruzko biografia bat argitaratu du Pamiela argitaletxeak, bertan Santiago Carrilloren jarrera gogorra kritikatzeko delarik (Martorell 2000).

1944ko udazkenean Frantziaren askapena gertatu eta gero, Francoren aurka ehundaka gerrillari bidali zituen Pirinioetara. Operazioa zapuzturik geratu zen, gero azalduko ditugun zenbait arrazoirengatik.

Frantziaren askapenarekin Moskuko buruzagitza —Santiago Carrillo...—, ildo stalinista jorratzen hasi zenez alderdiaren barnean, Monzon eta bere kideak albo batera utzi zituen; batzuek erailik eta besteek erbesteraturik bukatu zuten. Monzon Bartzelonan harrapatu zuten 1945ean Francoren aldekoek eta kartzelaratuak izan zen urte askotarako —Nafarroako bere lagun karlistek salbatu zioten bizia—. Kartzelatik 1959an irtendakoan Mexikora joan zen bere emaztearekin batera eta han egon zen lanean merkataritza zuzendari modura. Biriketako minbiziak jota hil zen 1973an Iruñean.

Jesus Monzonen irudia guztiz isildurik egon da orain gutxira arte, batetik PCko agintaritzak bere ildo politikoak onartzen ez zituelako, eta bestetik, Francoren diktadurak erabateko isiltasunera eraman eta baztertu zuelako pertsonaia hau, gerra osteko garrantzitsuenetarikoa.

2.2.2. Makien ekintzak Pirinioetan: eraso Aran bailaran

1944. urtearen hasieran II. Mundu Gerraren amaiera ikusten hasi zen, eta, beraz, Francoren erregimena ere horrela amaituko zela uste zuten espainiar errepublikarrek. PCk eta Monzonek ere horrela uste zuten: barne-erabakidak utzi eta guztiak Francoren aurka jarriz gero, bereak egingo zuela. Horretarako borrokara deitu behar zen gizarte guztia; gainera, makiak 10.000 gizon inguru zituen prestaturik borroka armaturako; “Espainiarantz!” leloa asko zabaldu zen une horretan.

Espainiako gerrillari taldeak sekulako eragina izan zuen hegoaldeko Frantziaren askapenean; bertan zuten indarra erakutsi zuten, eta hiri askoren askapena gerrillari hauen laguntzarekin gauzatu zen (Okzitaniako Tolosa, Marseilla edo Bordele). Askapenaren ostean, gerrillari gehienak Tolosan kontzentratu ziren; “Espainiar Errepublika Gorria” deitzen zioten hiriari. Denek zioten, behin gerrillariak Espainiara sartuta, Francoren aurkako matxinada bat sortuko zela, baina hori ez zen Monzonek uste zuena. Berak zera nahi zuen: lurralde zati txiki bat hartu eta bertan behin-behineko gobernu bat ipini Francoren aurkako ordezkari guztiarekin; horrela, nazioarteko aliatuek espainiar errepublika onartuko zuten eta Espainia bereganatzen lagunduko zieten.

Erasoak Pirinioetatik izan behar zuen, dudarik gabe; hori Francoren indarrek ere bazekiten —indar horien kontzentrazio handia zegoen Pirinio inguruan—; Monzonek Andorra hartzea erabaki zuen, bertako irratiaz baliatuz matxinada aldarrikatzeko. Baina militar teknikariak ez zeuden ados, beren ustean defentsa on bat antolatzeke egokiena Aran bailara zen eta. Dena den, Pirinio guztian zehar beste eraso batzuk egongo ziren nahasmena sortzeko (horietako bat, Nafarroan).

Erasoa 1944ko urriaren 9an hasi zen, eta Aran bailaran 2.000 gerrillarik hartu zuten parte. Makiak bailararen zati handi bat bere kontrolpean izan zuen egun batzuetan; orduan eraikitzen zegoen tunela ere beraien eskuetan geratu zen. Gainera Viella herria —haraneko hiriburua— eraso zuten eta bertako guarnizioa

estuasunean ipini zuten. Hala ere eraso antzua izan zen, ez baitzen egon ondo antolatutik; agian, erabakiak hartzeko gaitasuna faltatuko zitzairen. Bailara babesten zuen mendilerroan defentsa bat antolatu izan balute, leku egonkor bat sortuko zen, baina nahasmen handia zegoen.

Aurrera edo atzera egin erabakitzen ari zirenean agertu zen Santiago Carrillo, Moskutik etorri berria. Carrillok eraso bat bertan behera uzteko agindua eman zuen, bailara hartu zuten indar guztiak Frantziara itzultzeko esanez. Erabaki hori ez zuen erasoaren antolatzailea izan zen Monzonek hitzartu, Monzonek ez baitzuen honen inolako berririk. Aran bailaran eraso egiteko arrazoietakoa bat zera zen: atzeraka eginez gero, Frantziara joatea erraza izango zela. Horrela, gerrillariak apurka-apurka Frantzian sartzen ziren heinean, frantziar soldaduek itxaroten zieten armak kendu eta leku jakin batzuetara eramateko (Frantziak ez zuen begirune handiz ikusten eraso hori).

2.2.3. PCren jarrera Gerra Zibilaren ostean

PCren buruzagitza hasiera batean Frantzian ezarri bazen ere, gero Sobietar Batasunera ihes egin zuen; komunismoak Europako zenbait herritan sortu zuen mesfidantza hori zela-eta egin zuen ihes. Ihes egin zutenen artean, Dolores Ibarruri, Santiago Carrillo eta Irene Falcon zeuden, besteak beste. Soilik gutxi batzuk gelditu ziren Frantzian, eta azkenean Carmen de Pedrok, Komite Zentraleko idazkari izandakoak, hartu zuen Frantzian gelditzen zen egitura eskasa zuzentzeko ardura. Carmen de Pedrok aukeratu zuen lan taldearen barnean Jesus Monzon zegoen, lehen ikusi dugun bezala, egitura horren benetako ardura hartu zuena.

Baina II. Mundu Gerra bukatuta, prozesu stalinista hasi zen; Santiago Carrillok partidua berregituratuko zuen, eta buruzagitzarekiko kritikoak zirenak baztertu zituen. Izan ere, Gerra Hotzak polaritatea sortu zuen nazioartean, eta *Unión Nacional* polaritate horretatik at geratzen zen; Francoren aurkako batasuna eskatzean, ideologia ezberdinen arteko batasuna eskatzen baitzuen, ezker eta eskuinaren artekoa, hain zuzen. Nazioarte-mailan eta PCko buruzagitzan, erakunde honek jadanik ez zuen interesik; errekonkista armatuaren “abentura” bertan behera gelditu zen.

2.2.4. Makien bukaera, zergatiak eta ondorioak

Porrot horren ondoren, makiak gainbeheran joan ziren; Espainia osoan zebiltzan taldeak —Extremaduran, Andaluzian, Asturiasen...—, baina horiek ez zeuden Frantziakoak bezain antolatuta; izan ere, Francoren soldaduek estuturik ibiltzen ziren eta kopuru aldetik ere gutxiago ziren. Operazio gehiago egon ziren, baina ez Aran bailarakoa bezain garrantzitsuak (iskanbila txikiak); apurka-apurka harrapatu zituzten edo hanka egin behar izaten zuten.

Garbi dago Aran bailarako porrotak makien amaiera eta Espainia askatzeko saiakeraren porrota ekarri zituela. Horretan eragin handia izan zuen eraso gaizki antolatutik egoteak, baina baita ere Carrilloren jarrerak. Honek atzera egiteko agindua eman zuen, ustez, gerrillari horiek galduta egon balira bezala, baina, era berean, frantziar gudarosteak harrapa zitzaizkien egin zuen maniobra hori. Garbi dago

Carrillok gerrillari mugimendu hori zapuztu nahi zuela. Publikoki mugimendu guztiaren goraipamena egiten zuen, erresistentzia hori funtsezkoa izan zela esanez eta abar. Baina gero guztiz bazterturik utzi zituen, bai gerrillariak eta baita mugimenduaren sortzaileak ere.

Santiago Carrillo Moskun egon zen, Stalinen babesean erbesteraturik; horrela, Frantziara itzuli zenean Stalinen doktrina zabaldu nahi izan zuen, hau da, PCko agintaritza inolako disidentziarik gabe gauzatu behar zela, guztiz zentralizaturik. Jakina, ez zitzaion batere gustatu erresistentzia antolatzen geratu ziren PCko kideek independentzia osoarekin jokatu izana (Monzon behin eta berriro saiatu zen arren zuzendaritzarekin harremanetan jartzen), eta horregatik baztertu eta desagerrarazi zituen.

3. Makiak Euskal Herrian

3.1. Abertzale erbesteratuen erresistentzia, makiekin erlazioan

Espainiako Gerra Zibila hasi bezain laster, 1936-37an milaka izan ziren erbestera abiatu ziren euskal biztanleak; batzuk Frantziara eta besteak zuzenean Ameriketara joan ziren. *Burdinazko Gerrikoa* hautsi zenean, 1937ko ekainaren 12an, ez zegoen zereginik eta Bilbo galdurik zegoen. EAJko buruzagiek erretirada ordenatu bat egitea agindu zuten, eta hiriko industriak ez ukitzea. Santoñako akordioarekin indar abertzaleak errenditu egin ziren —Italiarrek bete ez zuten akordioa—, eta honek euskal errepublikarren arteko tirabira asko sortu zituen, Frente Popular alderdikoek borrokatzen jarraitu baitzuten, iparraldeko frontea erabat deuseztatu zen arte.

Erbestea Ipar Euskal Herrian —Frantziako hego-mendebaldean— finkatu zen, baina euskaldunak izan arren bertako biztanleriak ez zuen begi onez ikusi erbesteratze hori. Gainera, naziak iritsi zirenean errepresio gogorra egon zen erbestean zeuden euskaldunentzat, nahiz eta uste baino leunagoa izan zen; une horretan, 1940/41 inguruan, askok Ameriketara joatea erabaki zuten.

Bestalde, EAJko buruzagiek frantziar erresistentziaren aldeko jarrera erakutsi zuten, nazien porrotak Francoren jarrera-aldaketa ekarriko zuelakoan. Espioitzalanean eta mugalari modura hartu zuten parte euskal abertzaleek Iparraldean —Paris/Madril ardatza osatzeko—; ekarpen ekonomikoak ere egon ziren. Erlazioak ez ziren batere onak jeltzaleen eta beste taldeen artean; EAJk zera nahi zuen: sozialistak bere proiektu politikoan barneratzea EAJren nagusitasuna onartuta, bestela sozialistak gobernutik kanpo uztekoan. Baina honek krisi sakona ekarri zuen erbesteratuen artean.

Beste ildo politiko bat, jadanik II. Mundu Gerra hasi baino lehen hasi ziren jorratzen abertzaleak; nazioarteko elkar laguntza izan zen hori —OSSrekin, FBIrekin...—; horrekin aliatuak erakarri nahi zituzten, Francoren aurka egin zezaten. Honez gain, Agirre lehendakariak Ameriketako erbestean zituen bi helburu azpimarratu behar dira: batetik Estatu Batuetako gobernuarekin kontaktuan jartzea elkar laguntza estutzeko, bestetik, Ameriketako erbestea antolatzea. Galeuzka-ren sorrera ere garrantzitsua izan zen gerra osteko politikan; erakunde honekin Francoren aurkako talde ez abertzaleak bultzatu nahi zituzten, autodeterminazio-

-eskubidea onar zezaten. Frantziaren askapenarekin, erbesteratuak berriro herrialde honetara itzuli ziren; gainera, nazien porrotak baikortasun garai bat ekarri zuen; ezaguna denez, Gerra Hotzak zapuztu zuen baikortasun garaia.

Euskal abertzaleek ez zuten zuzenki makien erakundean parte hartu, baina batailoi bat osatu zuten. Batailoi hori Unión Nacional-etik etorritako zenbait pertsonarekin osatu zen, Pedro Ordokiren agindupean —ANVko militantea—, eta 200 bat pertsona sartu ziren. Hasiera batean Unión Nacional-en barruan zegoen, baina Aran bailarako erasoan ez parte hartzea erabaki zuten. Leizaolaren bidez Frantziako gobernuarekin kontaktuan jarri ziren askapenean laguntzeko. Gainera behin Frantzia askatuta, batailoiaren hurrengo eginkizuna zein izango zen, Frantziako eta Euskadiko gobernuen artean erabakiko zela hitzartu zen. Talde honek Gernika Batailoiaren izenpean, Arrotxela inguruan zeuden alemaniarren kontra jo zuen, zehazkiago Pointe-de-Greave-n gotorturik zeuden alemaniarren kontra, gotorlekua askatuz⁶. Batailoi honek fama handia izan zuen eta sari asko eman zizkieten, baina bere egoera ez zen batere eroso, beste egitura militarretan integratu behar baitziren; Euskadiko Gobernua Gernika Batailoia mantentzen saiatu zen, baina alferrikakoa izan zen saiakera hau, hilabete gutxi batzuetan desegin baitzen.

Euskaldun makiak bazeuden, baina gehienak ez-abertzaleak ziren: komunistak, sozialistak, anarkistak... Abertzaleek alde batera gelditzea erabaki zuten, batez ere Stalinen eragin nabariagatik erresistentzia horretan.

3.2. Makien erasoaldiak Nafarroan

Aurreko atal batean aipatu dugu Unión Nacional erakundeak erasoak burutu zituela Pirinioetan; nagusiena Aran bailaran izan zen, baina Francoren defentsan nahasmena sortzeko beste eraso txikiago batzuk ere egon ziren Pirinioetako beste leku batzuetan. Hauetako bat Nafarroan izango zen, Pirinioetako bigarren eraso garrantzitsuena. Beste leku batzuetan, Andaluzian edo Extremaduran, Aran bailara eraso ostean, gerrillak egituratu ziren eta denbora gehiago iraun zuten, baina Nafarroan ez zen horrela gertatu, han ez baitzen talde armaturik geratu eraso egin eta gero.

Izan ere, Pirinioetako nafar muga zeharkatu zuten makiek ez zuten bertan gelditzeko asmoarekin egin, jadanik antolaturik zeuden beste lekuetara joateko asmoz baizik. Nafarroa ez zen egokia bertan erresistentzia gune bat ezartzeko, ez ezaugarri geografikoen aldetik eta ez gizarte ezaugarriengatik. Beraz, igarobide, modura erabili nahi zuten lurralde hori. Ehundaka izan ziren Nafarroara heldu ziren gerrillariak, baina orain ikusiko dugun bezala gehienek atzera egin behar izan zuten Guardia Zibilaren eta soldaduen presiopean.

6. «Fueron días de muchas esperanzas, de mucha camaradería, pero sobre todo queda la frustración. Que estuvimos muy cerca de haber logrado derrocar a Franco en el 45, porque el exilio para muchos ha sido una tragedia personal y no reconozco la Euzkadi por la que nosotros peleamos en la actual». Jose Antonio Beledaren hitzak (Arrotxelan borrokatu zuen gudaria).

3.2.1. Makien urriko erasoaldiak Nafarroan⁷

Erdigune bezala Orreaga eta Erronkari bailarak izan zituzten, nahiz eta gero gerrillaren eraso guneak zabaldu egingo diren, Isaba-Belabartze aldera eta Auritze-Lesaka aldera. Mugimendu horiek aurkitu zituzten zailtasunekin erlazionatu behar dira, muga berriro igaro edo beste leku seguruago batzuetara joateko asmoarekin. 1944ko urriaren 3ko gauean 250 bat gerrillari sartu ziren Orreagatik barrena; egun batzuk beranduago, berriz, 400 gizonoz osaturiko 153. Brigadak Erronkarin egingo du bere sarrera; bi talde horiek Irati eta Erronkari bailaren artean borrokatu behar zuten.

1944ko urriaren 4an gertatu zen bi aldeen arteko lehen borrokaldia, Lazar Gainan guardia zibil bat hil eta beste bat harrapatu baitzuten makiek.

Hemendik aurrera, gehiago sartu ziren nafar lurraldean gainera banandu egin ziren eta bide ezberdinak hartu zituzten. Talde bat Xabros haitzartetik abiatu zen, eta ondoren Espartza eta Oronotzetik pasa eta gero Abaurreagainara iritsi zen. Baina presio handia jasan zuten soldaduen aldetik eta urriaren 8rako muga igaro beharrean izan ziren. Bigarren talde batek Bidankozeko bidea hartu zuen eta Uztarrotzeko mendilerroan guardia zibilekin egin zuen topo. Bertan gertatu ziren borroken ondorioz hiru talde sortu ziren, baina erdiek baino gehiagok atzera egin behar izan zuten, mugara. Soilik talde batek lortu zuen Bidankoze ingurura iristea, eta bertan, Atsagarbia mendi inguruan, beste enfrentamendu bat gauzatu zen. Enfrentamendu honetatik Francoren gudarosteko kideak irten ziren kalteturik —hainbat hildako—, baina soldadu gehiago etorri zenez, gerrillariak berriro ere ihes egin behar izan zuten.

Gelditzen ziren makiak Ollateko lepora abiatu ziren eta bertan berriz ere harrapatuak izan ziren. Ihesaldi nahasi bat hasi zen hortik aurrera eta gerrillari guztiak harrapatu zituzten urriaren 6 eta 8 bitartean —Arate, Elkoatz, Aristu...—. Soldadu nahiz guardia zibilek bilaketa-lanak egin zituzten eta hainbat gerrillari atzeman zituzten Belate, Ezkurra eta beste leku batzuetan. Badirudi ihes egitea lortu zutenak arin baino arinago ibili zirela leku seguruagoak bilatu nahian.

Hilabete bereko 20 eta 21ean Belaguako Juan Pito benta ingurutik 400 gizon sartu ziren eta gaua Belabartzen pasa zuten; beren asmoa Gardera iristea zen, bertatik Huescara pasa eta beste gerrillariekin elkartzeko. Baina besteetan gertatu bezala, ezin izan zuten arnasarik ere hartu etsaia atzetik zutelako. Lau edo bost taldetan banandu eta asko Frantziara itzuli ziren; besteek Lekunberri, Lesaka eta Elizondo artean zenbait ekintza burutuko zituzten. Esate baterako Baraibar eta San Migeleko Santutegiaren artean 17 gerrillarik erresistentzia bortitza jarri zuten, baina azkenean errenditu egin ziren. Lesakan 60 bat gizonen polizia armatuari eta guardia zibilei aurre egin zieten. Ollateko lepoan ere gertatu zen enfrentamendurik: bi guardia zibil eta bost gerrillari hil ziren bertan.

7. Nafarroan eta Espainian, makiek burutu zituzten ekintzen informazio zehatza aurkitzea ez da erraza gaur egun. Horretarako, bi iturri nagusi aurki ditzakegu: batetik, historia frankistak utzitakoa, ikertzaile ezberdinek eta garai haietako zenbait dokumentuk diotena, hain zuzen, baina erabat manipulatua (Aguado 1975); bestetik, ekintza horien lekuko eta protagonista izan zirenen testigantzak (Vicuña 1995) eta azkenaldiko beste zenbait ikerlan (Arasa 1984 eta Pons 1977).

Makien azken sarrera hilabete horretan Bentartetik izan zen; Auritzen gaua igaro eta gero, Ultzamara jaitsi ziren eta bertan Francoren gudarosteko infanteriarekin borrokatu ziren. Beste talde batek Bidasoa bailaran sartzea lortu zuen. Hasiere batean ez zuten erresistentziarik aurkitu, baina ibaia gurutzatu orduko eraso gogorak jasan zituzten; 20 hildako egongo ziren eraso hauetan, horietako bost Bidasoan itota. Beste guztiak poliziak atzeman zituen, eta asko desagertu egin ziren (seguruenik mendian erailak). Talde horien buru Victorio Vicuña zen, lasartearra, Euskal Herriko makien protagonista nagusienetako bat (hurrengo atalean emango dut pertsonaia horren berri).

3.2.2. Beste ekintza batzuk 1945 eta 1948 artean

1944ko urrian gauzatu zen sarrera-saialdi hori zapuzturik gelditu zela ikusirik, beste sarrerarik ez egiteko agindua eman zen, baina hala eta guztiz ere, 1945 eta 1948. urteen artean hainbat ekintza gertatu ziren Nafarroako mugatik sartu ziren makiek buruturik. Ekintzak oso eremu zabalera hedatu ziren, baina gehienetan iskanbila soilak ziren, edo beharturiko enfrontamenduak. Horrela gertatu zen Luzaiden, Lekunberrin, Goñin, Beran, Zugarramurdin, Erratzun, Uztarrotzen eta beste makina bat lekutan. Ekintza garrantzitsuena 1946ko otsailean gertatu zen: Gabriel Perezen agindupean 40 makik muga gurutzatu eta Picos de Europara joan behar zuten. Horretaz gain armak lortu behar zituzten; horretarako, lau gizon guardia zibilez mozorrotu ziren Noainen eta bi kamioi gelditu zituzten bertan armak eta gizonak gordetzeko. Baina Guardia Zibila oharturik zegoen jadanik operazioaz, eta kamioiak harrapatu zituzten, zenbait borroka egon ziren eta soilik hiru izan ziren Picos de Europara joatea lortu zutenak. Operazio honetan koordinazio-falta handia egon zen, kantauriar mendietako gerrillek operazioa itsasotik burutuko zela uste baitzuten.

3.3. Victorio Vicuña, Euskal Herriko makiaren sortzailea

Victorio Vicuña Ferreiro 1913an jaio zen Lasarten. Langile familia baten magalean hazi zen, eta berak esaten duenez, garai haietako Lasarteko langileen bizi-baldintzak ezin okerragoak ziren, lantegien jabeen esku baitzeuden erabat. Herri horretako UGT sindikatuaren eta Gazte Sozialisten sortzailea izan zen. Espainiako Gerra Zibilak Gasteizen zegoela harrapatu zuen, eta ihes egiteko Falangeko talde batean sartu zen izen faltsuarekin. Gerra galtzear zegoela beste milioi erdi pertsonarekin Rosillongo hondartzetan egon zen, Gurseko errefuxiatu gunean sartu zuten arte.

Alemaniak Frantzia hartu zuenean Bordelera egin zuen ihes gudakide batzuekin. Baina berriro harrapatu zituzten eta Mausac kontzentrazio-gunera eramane zituzten. Kontzentrazio-gune horretatik ihesaldi arriskutsu bat burutu zuten, eta erresistentzia frantziarrarekin kontaktuan jarri eta gero, Espainiar Gerrillari Taldea fundatu zuen beste batzuekin batera. Gerrillaren 3. Brigadaren buru izango da "Julio Oria" ezizena erabiliz. 1943an PCren bilera batean Pirinio Atlantiakoetan 10. Brigada sortzeko proposatu zioten, eta hala egin zuen. Talde hau zuzenduz, 1944ko urrian izan ziren erasoetan parte hartu zuen. Eraso horiek gertatu eta gero, Bilbon hiri-gerrilla bat osatzeko agindua eman zioten, baina zailtasun handiak izan zituen lan horretan.

Buruzagitza hau 1948an utzi eta Frantziara joan zen. Trantsizioan Euskal Herrira itzuli zen eta PCko militante izateari utzi zion. Gaur egun jubilatu eta erretiratuen eskubideen alde egiten du lan.

3.4. Makiak Euskal Herriko beste lurraldeetan

3.4.1. Bilboko hiri-gerrila eta ezkerlaldeko meatzegunea

Victorio Vicuñaak ematen digu Bizkaian antolatu ziren mugimenduen berri inork baino hobeto (Vicuña 1995: 238). Nafarroako erasoaldia burutu eta gero Bilbon ezarri zen Francoren aurka zegoen familia baten etxean. Bertan egon zen Frantziatik gerrillariak noiz etorriko zain; batzuk iritsi ziren, horien artean Bittor Lekunberri. Maki hauen asmoa Bilbon hiri-gerrilla bat osatzea zen, baina ez zen posible izan. Euskal Herriko geografiak eta Francoren indarren presentzia izugarriak ezinezkoa egiten zuen bertan talde finkorik egitea. Frantziatik Bilbora joateko zailtasun handiak zeuden eta asko harrapatu zituzten. Meliton Manzanos polizi buruak jarduera hori ederki asko bete zuen; guztira, 16 hildako eta 23 atxilotu egon ziren.

Ondorioz, gelditu ziren gizon gutxi batzuek Picos de Europa joatea erabaki zuten, bertan makien gerrilla bat baitzegoen. Hain zuzen ere, gerrilla honen eremua Bizkaiko ezkerlaldeko meatzeetaraino iristen zen (Triano mendien ingurura). Bertan zenbait ekintza egin ziren (esate baterako, Santander eta Bilbo arteko errepidean propaganda banatu), ekintza horiengatik talde horrek errepresio bortitza jasan behar izan zuen arren.

3.4.2. Ihesaldiak eta gertakizunak Gipuzkoan

Bilboko gerrilla sortu nahiarekin erlazionaturik, Gipuzkoan zenbait gertakizun jazo ziren. Herrialde horretan makien presentzia eskasa izan bazen ere, Bilbora joateko beharrezkoa zen hortik igarotzea. Asko harrapatu egin zituzten, eta ihesaldiak ere gertatu ziren. Adibidez, Bilboko gerrilla desegitea erabaki zenean, batzuek Picos de Europa joatea erabaki zuten arren, beste batzuek Frantziara ailegatzeko asmoa erakutsi zuten. Lau gerrillari hil ziren, baina beste hiruk Donostiaraino iristea lortu zuten; bertan Frantziara joateko norbait bilatu nahi zuten, baina polizia atzetik zebilen jadanik. Guardia Zibilak etxea inguratu eta, borroka latz baten ostean, hiru gerrillariak hil zituzten.

Beste talde bat Hego Euskal Herrian sartu zen, baina Jaizkibelgo haitzetan kargadore bat galdu zitzaien. Mendelu auzoko baserri batean gorde ziren, Donostian harremanen bat aurkitu nahian, baina saiakera hori alferrikakoa izan zen. Zegoena ikusirik, taldeak sakabanatzea erabaki zuen; batzuk Bilbora joan ziren, baina beste bi Donostian gelditu ziren bigarren talde batek ekarri behar zituen armen zain. Bigarren taldea iristean Lekunberri buru zutelarik Eibarrera bidali zituzten. Armamentua, berriz, Hernaniko leku batean gorde zuten. Baina polizia atzetik zuten eta laster atzeman zituzten. Horrela erori ziren taldeak Donostian eta Bilbon.

1945eko apirilean, berriz, Pacheco komandanteak zuzendurik sei gerrillarik muga zeharkatzea lortu zuten eta Urnieta-Hernani aldera iristea lortu zuten. Baina polizia hauen lorratza jarraitzen ari zen, eta Adarramendi inguruan zenbait

borrokaldi gertatu ziren; hala ere, ihes egitea lortu zuten. Armak Adarrako leku seguru batean gorde ondoren desegitea erabaki zuten, Bilbon elkartzeko asmoz, baina soilik lau gerrillari ailegatu ziren hara.

Adibide hauek erakusten dizkigute Euskal Herrian makien gerrillari talde bat osatzeko zeuden zailtasunak, sartu ziren gerrillari gehienak harrapatu egin baitzituzten. Ekintza isolatuak ikusten ditugu, eta antolakuntza eskasekoak.

4. Ondorioak

Hasierako helburu edo galdera bat gai hau aztertzerakoan zera izan da, Euskal Herrian makien fenomeno berezia izan den ala ez jakitea. Hainbat gauza ditut honi buruz esateko; batetik, ezin dugula esan berezia bai edo ez, ñabardurak egitea ezinbestekoa baita. Nik esango nuke ez zela berezia izan, makiak ez baitziren beste ideologia batengatik borrokatu Euskal Herrian, Espainia osoan eta Frantzian egin zutenagatik baizik, Francoren agintea deuseztatzeko. Beraz, ezin dezakegu esan makiak euskal aberriagatik borrokatu zirela. Abertzaleek, hasiera batean parte hartu bazuten ere, gerora, mugimendu horretatik kanpo geratu ziren eta Euskal Herriko borroketan egon zirenak komunistak izan ziren hein handi batean.

Baina ñabardura zera da, makiak abertzaleak ez ziren arren, Euskal Herriko gizartearen zati handi bat hala zen eta horrek asko baldintzatzen zuen makien lana, gizartearen laguntza eskasa jaso zutelako eta batez ere indar errepresiboak ugariak zirelako lurraldean. Dena den, esan beharra dago, abertzaleen artean egon zitezkeela makien aldeko jarrerak, batez ere Francoren aurka borrokatzen zirelako. Laguntza eskasia errepresioaren ondorio ere izan zen: hain lurralde txikian Guardia Zibilaren kontrola erabatekoa zen, eta biztanleak zigorren beldur ziren. Baina azken ezaugarri hau Espainia osoan aurki dezakegu.

Beste ondorio bat zera da, orokorki harturik, gerra osteko gerrillari mugimenduak gerraren jarraipen bat izan nahi zuela, eta ez gerraren ondoren sorturiko beste mugimendu bat. Etenaldi bat egon zen, baina gerra ez zela amaitu pentsatzen zuten bertan parte hartu zutenek; Aran bailarako erasoa, adibidez, zentzu horrekin egin zen.

Baina zergatik egin zuen porrot mugimendu horrek? Batetik, Frantzian zeuden gerrillariak gerraren jarraipen baten itxaropena zuten arren, Espainiako biztanleriak gerra amaitutzat zuelako. Aran bailara erasotzean ez zen inolako altxamendurik egon (makien ustearen kontra), eta Francoren indar errepresiboek ederki bete zuten beren lana, Francoren helburuetako bat gizartearen "garbiketa" egitea baitzen. Hilda ez zeudenak, erbestean zeuden eta gelditzen zirenak etxean gordetzen ziren.

Biztanleriaren laguntza hori gabe, makiak ezer gutxi egin zezaketen; milaka ziren, baina Francoren gudarostearen kontra ez zuten zereginik. Atzerriko indarren laguntza ere espero zen, baina ez zen heldu eta Francoren faxismoa ez zuten arriskutsutzat ikusten, batez ere gerra batetik atera berria zegoenean.

Mugimendua zapuztu zuen azken baldintza barne tirabirak izan ziren, stalinismoaren eraginpean PCren barnean ere garbiketa egin nahi izan baitzen: ihesi joaten zirenei "traidore" deitzen zitzairen, baina aurrera jarraitu nahi zuten agintariak ere baztertu egiten zituzten. Carrilloren jarrera stalinistak motibazioa gutxitu eta antolakuntza oztopatu zuen.

Bi helburu nituen; lehenengoari dagokionez, aipatu dut mugimendua ez zela berezia izan Euskal Herrian, baina gizartearen erantzuna agian bai. Bigarren helburuari buruz, berriz, zera ondorioztatu dut, gizartearen erantzun ezak, Francoren gudarostearen nagusitasunak eta barne tirabirek, guztiak orokorrean harturik, makien mugimenduaren porrota ekarri zutela. Ezin diogu soilik batzuei edo besteei egotzi porrot hau, orokorra izan baitzen.

Bibliografia

- Aguado Sánchez, F. (1975): *El maquis en España*.
- Anasagasti, I., San Sebastian, K. (1985): *Los años oscuros (El gobierno vasco. Exilio)*, Txertoa, Donostia.
- Arasa, D. (1984): *Años 40: maquis y el PCE*, Argos Vergara,artzelona.
- Chueca Intxusta, J.P. (1997): *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian*, Euskaldunon Egunkaria, Andoain.
- Fernández, A. (1988): *Españoles en la resistencia*, Zero, Bilbo.
- Fernández, P. (1988): *El maquis al norte del Ebro*, Aragoiko Diputazio Orokorra.
- Garmendia, J. M., Elordi, A. (1982): *La resistencia Vasca*, Aranburu Argitaletxea, Donostia.
- Jiménez de Aberasturi, J.C. (1996): *Los vascos en la segunda guerra mundial: la red "comete" en el País Vasco (1941-1944)*, Txertoa, Donostia.
- , (1999): *De la derrota a la esperanza: Políticas vascas durante la Segunda Gerra Mundial (1937-1947)*, IVAP, Bilbo.
- Martínez Mendiluce, J.A. (1998): *Historia de la resistencia antifranquista en Alava: 1939-1967*, Txertoa, Donostia.
- Martorell, M. (2000): *Jesus Monzon*, Pamiela, Iruñea.
- Pons Prades, E. (1977): *Guerrillas españolas, 1936-1960*, Planeta,artzelona.
- Roda, F. (1990): "El maquis en Navarra", *Príncipe de Viana* 189, 262-302.
- Rodríguez Alvarez, M.J. (1988): *Los vascos en la segunda guerra mundial, memoria del Batallón Gernika*, Mensajero, Bilbo.
- , (1999): "Victorio Vicuña, alto mando de los maquis", *Diario 16*, Otsaileko zenbakia, 76-83.
- Rodríguez, M. (2000a): "El maquis en el País Vasco", *Euskonews & Media*, 81.
- , (2000b): "El caso de los comandos vascos", *Euskonews & Media*, 99.
- Ruiz, M.J., Esparza, J.M., Berrio, J.C. (1986): *Navarra 1936, de la Esperanza al terror*, Altzafaila Kultura Elkarte.
- Vicuña, V. (1995): *Combates por la libertad*, Lasarte-Oriako Udala, Lasarte.

MAKIEN IBILBIDEA NAFAR PIRINIOETAN



Makien joan-etorriak



Enfrentamenduak soldadu eta guardia zibilekin

